EGUNA

JEL

Egija.
Euzkadi Abeŕi txikija da, geuria baña.
Eta bere luŕaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Lgo. urtia | 116'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 18'gna. astartea | 15 eunen

EUZKO GUDA-OÑETAN

Eguraldi zakaŕa bide, bare ta geldirik lotu ziran atzo gure gudariak guda-oin orotan

Erañegun arerioari suagetetako egazkin bat luŕeratu zioten gure gudariak. Erañegungo oldarketa gogor ondoren, guda-esiak gogortzen eman zuten guretaŕak eguna.-Beŕiro ekitzeko gertu ta tinko.

BARE ALDI GUDA-OIÑETAN

Eguraldiaren zakaŕa bide, bare-aldi izan zuten atzokoan gure gudariak.

Erañegun alenak eta lefenak egin zituan arerioa ere geldirik lotu zan atzo.

Geldirik eta baketsu guda-oin orotan.

GEURE MENDE DEGU JATA

Erañegun, igandez, etengabean eta atergabean jardun zuten arerioaren egazkiñak.

Iru ondukon sute ta kea izan zan inguruetan. Baiña, geure gudari kementsu ta erimeen bikaiña ta adorea bide, ez zuan arerioak uŕatsik eman aufera.

Alenak eta lefenak egin zituzten.

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, USTE GABEAN KALERATU ZAIGU ETA ASKO ARITUTA DAUDE NOLA EUZKERAZ EGUNKARI BAT ARGITALDU LEIKEN. IRAKURTZEN ALDEZU? ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA, ZAUDE?

Aidetik, ikasotik eta legofetik jardun zuan jo ta su, baiña ez suak eta ez ondamendiak ez diete gure gudariai atzeraŕik eragin.

Eta, joaldiok-joaldi egin ondoren, euren esku dagola Jata esan dute paxistaŕak.

Jata gure mende ta gure esku dago! Antxe dago gure gudaria tinko ta sutsu, sendo ta kemen. Jata mendiari bere gorputza josita, bertako luŕari erotuta.

Eta ez dago gure euzko gudari kementsuari atzera eragingo dion areriorik.

JO TA SU GUREAK BIZKARGI'N

Jo ta su jotu ziran gure gudariak erañegun Bizkargi'n.

Arerioak egundo agertu ez duan kemen eta adorea agertu zuten guretaŕak.

Baŕuan iŕakiñez duten gogai zindoak eragindako oldarketari eman zioten.

Eta aufera egin zuten. Arerioaren alanbradatarajño baŕuratu ziran.

EGAZKIÑAK ETA EGAZKIÑAK ZORNOTZA'N

Egazkiñak eta egazkiñak agertu zian Zornotza inguruan.

Bat, bi, bost, amar, ogeitamar ager-

Guda-Zaingoko burukideak atzo g abeko amaŕetan emandako agiri orokoŕa:

"Gaurko eguraldi zakaŕa bide, on doren gabeko artileri ta fusil-buŕuketa etena baiño ez da izan gaurkoan.

Arerioaren "cizeko" batzuk, besteŕak aztertuaz, jira-bira bat egin dute gure guda-oiñetara.

Atzo, ilunabaŕez, guretaŕen fusil-luŕeratu zuten. Nafaŕete-inguruan biraka jokoak suagaketako egazkin bat lur-joten ikusi zuten."

Izpaŕingietan murgilduta gabiltzanok gustitariko aldizkingi ta izpaŕingijak iraku-ŕi biaŕa ixaten dogu, ta atzo ekiñaldi edeŕa egin geuntsan. Donostia'kuak ziran geyenak.

¡Areik darabile ostera saltzia ta guzuŕa! Eurak diñoenez, lenguian "manifestasiño tremendua" osotu eben Bilbao'ko emakumiak gure Agife lendakari ospetsubaren aufka!... Atzaparkaraĥokuak egin eutsezan. Eta gu, memeluak, ezebe iakin barik. ¡Kokoluak ezpa-gara!

卐 卐 卐

Beste leku baten ostera, "existen corrientes favorables a la rendición de Bilbao", diño izki andijekaz.

Gustijok buruba makuŕtzeko gerturik gagozala diño. Bilduŕa, unetaragiño saŕtu ei-yaku, kañoi-otsak-eta entzuten asi garalako.

¿Bai, e? Egon zaŕeze oŕetan. Ikusiko dozube zer jazoten yatzuben egun gitxi baŕi-ta.

¡Bilduŕa! ¡Zer dan be ezpa-yakijek ori, Bilbao'n! Emen, jaunak, beste iñun jazoten eztana jazoten yakuk. Zenbat-eta areyua uŕago, eŕija nasayago.

Daunbada-ots batzukaŕik ikaratzen garala uste ba-dozube mutilak, ezagoze txaŕak. ¡Ikaratu! ¡Ezta Atxuri'n, Pal ka'ren trabenan txikituak artzen ikusten ba-zaŕubegu be!

Eta... ala ta be, kontuz ibili, mutilak Atxuri'ko okeŕunan mosuba lenengo ataratzen dabenak eruango dauan "ladrillasua" eztok makala ixango.

¡Ikaratu! ¡Ez kontro!

¡Bilbao'n zubek saŕtu! ¡Ezago!

卐 卐 卐

Eta... jaŕatu daigun paxista-izpaŕingiiori irakuŕten. Bilbao'n ez ei-dago etoya, koldaŕa ta erailtzalia baño. "Sobre todo, guaris cobardes que sólo saben correr ante nuestros soldados. No saben disparar sus armas en las trincheras ni hacen frente a nuestras tropas."

"Parrafada" au egija-ete? Guzuŕa-ete? Jo daigun izpaŕingi paxistioŕen beste oŕi aldera, ta, erantzuna laster aurkituko dogu. "Muertos por Dios y por la Patria" izki andijen azpijan, auxe diño: "Los que han muerto gloriosamente en los frentes de Vizcaya." Eta ondoren ixen leŕokada au:

Ramón Mendeville, comandante de Caballeria.

Alvaro Padilla Satrustegi, capitán de Ingenieros.

Manuel Fernández Silvestre, comandante de Caballeria.

Francisco Txintxuŕeta.
Seratin Otxategi.
Manuel Lersundi.
Gabriel Ausin Garbizu.
Servando Alete Tasco.
Miguel Gonzalo Bidaure.
Jesús Felipe Tolosana.
Martin Martínez Cantero.
José Astrain Uŕutia.
Tirso Galor Labiano.
Valentín Ayucar Metauten.
Salvador Elarbe Añorbe.
Basilio Luna Reta.
Jabier Revole Redin.
Eugenio Irurzun Erro.
Manuel Ayesa Agife.
Ramón Sanz Acedo.
Dionisio Lizaŕaga.
Fermín Ayeŕa Ortiz.
Esteban Lizaŕaga Pérez.
Valentín Ayucar.
Erantzun edeŕa, ezta?

Eta ori, gure gudarijak areyuari arpegi-emoten eztakijelarik. ¿Zer ixango ete zan jakin ixan ba-lebe?

Arazo onj buruz, azalpen gaŕatzak egin daikeguz, gava eurak emon be egiten dauskube-ta. Baña betiko jausi ixan dan edonori lotsea gordetzen dakigularik, ixilduko gara. Goyan begoz.

ZER-ESANLARI

tu ziran. Orduak-ordu beruna ta sua baiño ez zerioten.

Goi eta betik gondiñenik-gordiñen ekin zion arerioak.

Ekin arerioak baiña erantzun buretaŕak. Egoki erantzun ere!

Bein geiagoz lur-jota gelditu ziran arerioaren egazkiñak. Mila aldiz geiagoz zuŕatuta lotu zan. Anei aldiz kementsuago ta sutsuago zirala agertu zuten euzko gudariak.

ARERIOAREN EGAZKIN BAT LUŔERA

Eguna agertu ordukoxe ziran atzo egazkiñak aideak uŕaka.

Jata'tik Bizkargi'ra bitarteko bide-gaiñean ibili ziran.

Ala ere bestetan baiño bonba gutxiago jaurti zuten atzo.

Euren odol-egaŕia asetzera gure gudarien soin-mami biña, be-beraiño jatxi ziran.

Erne baiña beti ere gure gudariak eta fusil-jokoari eman zioten.

Bat-batez zeaŕka ta okerka zan suagaketetako egazkin aundi bat.

Gefi-geŕia arapatu zioten guretaŕa fusil-tiroak.

Eta egazkiña, Nafaŕete inguruan, biraka zan luŕera.

Beste bat luŕeratu dute geiago.

Ez suak eta ez eriotzak, ez dute euzko gudaria koldartu.

Beste egazkin bat luŕera! Fusil-tiroz luŕeratu dute.

Eta... laister? Gure egazkiñok, laister benetan. ego-zabal, arerioarenai atzera eragiten ikusten dituguneen, zeintzuk bide izango ditugu jaraituren?

Argi ta garbi ikusi du arerioak gure gudareen kemenik ausi ezin dutena.

Bideak zoztoŕez idoro ditu ta lur-jota du daukan adore apuŕa.

Eta euzko gudaria tinko ta sutsu degu ain maite duan euzko mendiari bere soiña erotuta.

Gurenda-egunak ditugu gaiñean. Azkatasun-eguzkia baso-gibelean.

Gora biotzok eta aufera begiok!

Gora euzkotar gudari kementsu ta zintsuok!

Arerioa birindu arte, JEL-aldez aufera!¡

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALE BIDEZ, EUZKADI'KO NEKAZARI ETA ARANTZALEAK ABERTZALETUKO DITUGU. ABERTZALEA ZERALA DIOZUN OREK EZ OTE DIGUZU LAGUNDUKO EKITEN, DIOGUN LAN ABERKOI ONETAN?



ATSEGINKERIA DUTE ELBURU TA DIRUA BITARTEKO

Guduketa odoitsu au sortu zutenak atseginkeria duteelburu ta dirua bitarteko. Esandakoari azala uŕatu ta zoritxaŕez ain sakon eta luze eŕoak edatu dituan egi oŕi muiña kanporatzen alegiñak-alegin jarduteea, asti-galtzea degu. Bururatu aufe-urtetako edesti zakaŕa ta josi une batez buru, biotz eta begiok gaurko gordiñari. Atseginkeria lortzeaŕen sortu zuten gudatea ta, oŕi lortzeko, dirua dute bitarteko.

Atsegiña du beti ere gizakiak azken-elburu. Begiak argia du berera, atsegiña nai kolkora gogoak. Bada lur zabalean atsegiñak kilima ez dagion gizakirik?

Baiña, griña makuŕak menderatuta, adimena ilunduta, bere burua abere eginda, guduketa au leporatu digutenak irazur egin diote "atsegiñari", irain eta destain atsegin uts dan Atsegiña Berari. Atseginkeriaŕ griña naŕatxak erne-erazo oi duan ezti-lilura autu dute jaungoiko, jaungoiko-izun, eta jaungoiko oŕexen mofoi dira geroztik. Oŕexentzat dute buru ta biotz, oŕexentzat oro eskuarteko, oro ogasun.

Buda zan antziña, Mahoma aspaldi batez, inditaŕen jaungoiko-izun odolzaleak beiñola. Euren menpekoai semearen odol garbia, aidearen burua, ume gaixoaren soin-mami bigunak zeskaietan. Eta eurak... (Jaungoikoak eskatzen zieten), eskariari odol beroa eskeintzen zioten, geiago argituko ez ziran seme kutunaren begiak aldareratu, oro ondasun erantzi. Jaungoiko ankefak!

Orixe gertatu da gaurkoan ere. Paxistaŕai, jaungoiko autu dutenak berak, geure odol garbia ta geure soin-mamiak eskatu dizkie. Eta ikusten dituzute eskari oŕen ondoren gaŕatzak? Paxistaŕ basapiztiak (basapiztiak ez dute baŕuan afik) eskaria betetzeari eman diote ta buruak ez dagiote atzerarik. Eskuak odolez dituztelarik aldareratu dira eta odol-luŕunetan dauden soin-mamiak eskeiñi euren jaungoikoari. Atseginkeri ankeŕa! Bonba erailtzaileen sua duzu aldare-argi, su oŕen kea etxe-ezagun eta ainbat ume ta emakumeen piłotutako soin-mami garbiak aldare-mai. Eta zure jafaitzaileak men eta gur egin dizute uneoro!

...eta dirua dute bitarteko. Langilearen zoritxaŕa arintzeko, anaiak anaiari zor idiona ornitzeko, zokoperatuta zituzten diruok. Gaur, euren griña zabaŕak asetzeko, ez diote diruari eŕukirik. Guda-tramankuluak, egazkiñak, eta, oŕi aski, ez bai'litz gizonak-gizon ekaŕi dituzte. Oro alderdietara edatu dute dirua ta gu ondatzeko bear dan guztia etxeratu. Diruak-diru, miloiak-miloi eralgi dituzte lur-gaiña gorpuz estaltzeko. Aideak uŕaka, run-runka, oro lekutan ondamendia ta erriotza ereintzen duten egazkiñak lortzeko esku-zabal erein dute diru oŕi. Gizonak ere diruz ekaŕi dituzte; salgai dagon gauzatzat jo dute begiz gizona ere, ta italiaŕ, alemaniaŕ, mairu ta ostontzeko basapiztiz josi dute gure lufaldea. Erosi egin dituzte. Diru-burnia bera baiño ere gogoŕagoko biotza dutenak biotz gabeko basapiztiak erosi dituzte. Eleizan abere-saltzen ziardutenak zigoŕez kanporatu ba'zituan Josu'k, gizonaren adimena, gizonaren gogoa ta biotza erosi ta saltzen ari diranak zer dute merezi?

Gizonak-gizon erosi dituzte, baiña ez gaituzte guerosiko. Bear-bada ainbat zauritu ta il dituzten egazkiñak ordaintzea lortuko dute paxistaŕok. Baiña, lurpean biotzik datzan gudariaren gorpua, sukalde-bastaŕean negar-malkoz, lur jota, dagon amaren samiña, ume-zurtz gelditu dan gaixoaren ituna, ez dute diruz ordainduko. Ez dira salgai dauden gauzak eta diruaren jaulkiz ez dituzte ornituko.

Ez dituzte ordainduko, ez dituzte ornituko ta ez diegu barkatuko, eraiłketa ankeŕok barkatzea ez dago gure esku-ta. Giza-legeaz batera Jaungoiko-legeak ausi dituzte, ta Goikoak berak bakaŕik du ori barkatze al.

Baiña, atseginkeria elburu dutenak eta dirua bitarteko, ez dute Jaungoikoa diruz erosiko. Ez duta Goikoaren onespenik diruz eurengauatuko.

MENDIGAIN



Mingañak garbi, mutillak!

Kantauri ertzera oraindik eldu dan olaturik zakaŕen beldurgaŕiena birau olatua da. Gero ta indar aundiago artzen ari dala argiro ikusten degu beŕiz. Au zorigaitza gurea! Okerbideak zabalak dira ziñez, eta bertaratzea une guzitan eskatzen dutenak. Zuzenbideak bidetxigor estuak nunbait, eta aietarako iñork gogo gutxi. Au guzia ebanjelioak agertzen diguna dan ezkero ez degu geiago aitatu beaŕik.

Birauz kanpora okerbideak mila egaletan arki ditezke ta gaur ez gera oŕi aztertze asmoz asi. Birauatzaz itzegin nai genuke soil soil.

Iñork ez dezute ukatuko zatarkeri berdingabe onek aspalditxoan euskal lufetan artu duan indaŕa. Mila lizunkeriren sustraia auzotik eldu zaigu euskaldunori, ta gerora lizunkeri oen indaeemalerik aundienak geroni izatera eldu gera. Birana edozeñen aotan da ezezkaŕi ta itxusia, baña euskaldun baten aotan askoz areago.

"Aŕasto" ta "aŕaio" beste biraurik etzuten gure aufeko zaaŕak, gaurko gaztediaren aozko lizun osiña ikusita, zer esango ote? Negar samiñak urtuko ez ote lituzke? Ni beintzat baietzean nago.

Asko aŕokeriak bultzata jarduten dira bazter guziak kixkali beaŕez; gizonagoak diralakoan, bikañagoak diralakoan... A inuxente alenak!...

Beste askok aŕiturik uzten gaituzte. Uneoro ta nunai Jaungoikorik ez dala egiñez dabiltz, eta bereala bera aotan artuta munduaren lau exkiñak efe beaŕean. Baña... ez dan gauza nola aitatzen dezute ainbat aldiz? Ez dan izakiari nola oŕenbeste gaŕantzi? Auetxek bai benetako txotxoloak!

Nire eŕiko trabena batean bide auek artutako euskaldun batek ala zion eztabaidan asaŕeturik:

—Ez, jauna, ez; ezta Jaungoikorik... ¡Como hay Dios!... Ezta Jaungoikorik...

Amaika olako arki genezake ortara asita.

Zakur zaunkariak ikara gutxi eman izan du. Bazter guziak irentsi bear dituztela diruditen oiek ez dute besteengandik berezitasunik agertzen. Gizonak ezagutzeko ez daukagu ari txaŕa eskuartean. Askotan ikusten dana au da ordea:

Guzia mundu ontan bukatzen dala uste duten oiek bizia geiegi maite dute nolanai aŕixkatzeko. Betikotasunaren itxaropenez garbi dagon gaztea edozeŕi eltzeko gertu dago: gazte ori ikaratu ta atzera-tuko duan ekaitzaldirik ezta sortuko. Au saŕi ikusi degu oraingo guda ontan ere.

Nire adiskide zintzo batek zesaidan lengo egunez:

Iru motoŕezko egazkin ikaragaŕi oiek baño euskaldun arteko birauak beldur geiago zemakiola berari.

Baztertu zagun jokera tamal au: gaibi gaitean euskaldun abertzaleok. "Aotik sartzen degun zikiñak ez du baŕenik zikintzen, aotik ateratzen degunak baño."

Kontu egin oiek Jesus'en itzak dirala.

Saia gaitean ba sustrai txar denak, ondotik mozten. Egunen batez, Euskaleŕiari buruz, Cananea'ko emakume elbaŕiak entzun zuana entzun dezagula:

"Zeure sinismen edo fedeak gaizkatu zaitu."

BASAŔI



GUDA-LAUKIAK

Solube'ko gain bat.

Jo ta jo ari zaizkitzu etsaiak.

Gure mutilen aragizko esia apurtu nai dizute.

Gureak, utzi beaŕean izan ziran luŕeetan josirik dituzte begiak. Aberi-luŕetan. Izena eman zien luŕetan. Gurasoen gurasoen gorpuzki-utsak dauden luŕetan. Edestiaren ilunean galduak diran eunkien asieretatik Aitor'en semeak bizi izan diran luŕetan.

Etsaiak, beŕiz, Bilbao begizjo nai dizute. Bilbao'rako bideak uŕatu nai dizkitzute. Berea ez dan luŕatzaz jabetu nai dira. Gure eŕiaren aberastasun-miñez dira...

Eta jo ta jo ari zaizkitzu.
Zakur amoŕatuaren gisara.
Gosetiaren gisara.
Aragi-gose danaren gisara...

卐 卐 卐

Solube'ko gain bat.

Soiña luŕari itsatsita, etsaien graso zitalari arpegi emanka ari zaizu gure gudari sail bat.

Zeruan, egazkiñak su jario. Egazkiñak etetzeke. Egazkiñak burni jario.

Sua dator goi beetatik.
Sua etengabe.
Luŕetik goietatik bezin are.
Goietik, ordea, nabarmenen.

Bat batean, asmo ausarta bat ernetu da gudari-sailean: arerioarengana ondoratzea. ¡Oar, emendik, gureen inpernua!

Laxter, aufez-aufe, ukalondoz-ukalondo, arpegiz-arpegi dira azkatasunaren eta faxiozaletasunaren gudariok.

Aginka, ukabilka, gizonez-gizonka...

Egazkinlarien amoŕua...

Gizon naasi artan ¿nork asmatu, nongo egazkinlariak somatu nor nor dan?

UZTUARI.



BILBAO'KO izpaŕingiak

"Euzkadi"

Orain, iñoz baño senduago agertu biaŕ ei-gara. Paxiotaŕak guda onetan darabilezan guda-tramankulu ta gudoŕni, Europa'ko guda nagosijan be ez ei-ziran ikusi. Oneik, paxiotaŕoik, gudorni ta enparauko, eŕuki barik eralgiten ei-dabez.

Alan be, gudorni ta guda-izkilurik onenak eurekan ixan da be, auŕerakada gitxi loŕtuten ei-dabe. Gudarijen ondamendija, ostera, eurak gurako daben baño geitxubago.

Paxiotaŕak olakorik ez ei-eben ikusi. Galtzen daben beste gixon galduko ebezenik, ez ei-eben uste ixan. Egunak, baŕiz, auŕera ei-yuakeze. Franco'k, Mussolini ta Hitler'ek amabost eguman euren gurendeaz amaŕuko ebelakuan asi eben gudauŕkeak, amabosteko asko iruntziko ei-dauz. Eta gurendea gudeari adoretsuben eusten dakijanarentzat ixango ei-da azkenian.

Arerijua, orain aŕte egin ixan dauan indaŕaldija egin-ondoren, makalduta aurkitzen dala diño. Otxandiano, Urkiola, Dima ta Elgeta'n gudatu ixan ei-zan arerijua bere indaŕ gustijakaz. Gaur makalduta aurkitzen ei-da. Makalduta dala be, baña, Bilbao aŕtuteko asmoz asi eban gudauŕka oni ez dautsala beriala lagako diartuño, paxiotaŕen ixate gustija gudauŕka onetan jokatzen dala-ta.

Euzko-gudaroztiak gudaurka onetan asko ikasi ei-dau. Gauŕ itxaropentsu eusten ei-dautsa arerijuan. Euzko - gudaroztiak arerijuari iminlen dautsoen esija apuŕtuta Bilbao'ra saŕtuteko, paxiotaŕak agertuten daben baño indaŕ geyago biaŕ ei-da. Aŕisku-aldija, baña, ondiño ez ei-da igazi. Arerijuak baŕiro be joko ei-dau. Baña bai guk eutsi be.

"Tierra Vasca"

Noel Monks englandaŕ izpaŕkingilaŕjak "Daily Express" izpaŕingijan argitaldu eban idazlana beŕidazten dau. Gernika'tzazkua da idazlan au. Eta berau idazteko ixan dauan zijua, paxiotaŕen guzuŕak.

Gernika'ko jazokunetzaz Noel Monks'ek bere izpaŕingijan argitaldu ebazan egijak, Queipo'k ifadotsetik guzuŕtau egin ei-ebazan, ba, doistaŕen egazkiñak egin ixan eben kalte gustija eurik txikijenik ez ebenen bizkaŕetara jaurtiteko.

Noel Monks'ek, baña, gai bera aŕtuta, baŕiro idatzi dau, agirijak ziñaldari agertubaz egijari yaokan tokija emoteko.

Queipo'k, iñuazan guzuŕak sendotuteko beste sendogaŕirik ixan ez da, Monks izpaŕkingilaŕijarenauŕka itz oneik ogusi ei ebazan: "Noel Monks jaunori, moskoŕtil bat da. Gure gudaroztiakin ibili ixan zan aldi gustijan, moskoŕtuta ibili ixan zan."

Oŕa, oŕ, Queipo'ren mintzaera. Beleak topiñari esan eutsana baño be baltzagua dala dirudi Queipo'k Monks jaunari esan dautsana. Queipo ordijak, antza dagonez, bere antzekuak dirala uste dau gixon gustijak. ¡Gaxo-gaxua! ¡Ordijagandik gauzonik ezin itxaron leike itxaron be-ta!...

"Lan-Deya"

Zinistedun gixon bi ikusten dauz izpaŕingi onek. Eta ikusi be, elburu bateruntz -egiten ikusten dauz: gurende - elburura egiten.

Gixon bi oneik, Foch francetaŕa ta Agiŕe euzkotaŕa ei-dira. Lenenguaren zinismena, doistaŕak Paris'erako bidian auŕeratuten asi ziranian ikusi ei-zan. Bigaŕenarena, ostera, paxiotaŕak Bilbao'runtz egiten asi diranian. Arek, ziniste aundiko Foch keneralak, bere zinismena ta zintzotasuna bide zirala, galdutzat etsiten eben gudea irabazi ei-eban.

Eta onek, beronen zinismena taŕ zintzotasuna bide dirala, euzko-gudaroztiak adorez adoretuta jaŕtia loŕtu ei-dau.

Foch'ek, Paris gaizkatu ba-eban, Agiŕe'k Bilbao gaizkatuko ei-dau, ta Euzkadi gurendaz burestunduta jaŕi.

"El Liberal"

Eŕkala'ren kaltez Bilbao'n igiŕuten dan boskaŕen leŕuari deragoyo. Guda-etzetijan begi-zuŕ ibili biaŕ dala diño, paxiotaŕak ur-samaŕ ixatiak, boskaŕen leŕoko arerijo oneik bizkoŕtu egin dauzala-ta.

Bilbao'ra eldu-gurarik ikusten dabezan paxiotaŕ gudaroztiak Bilbao'ra bidian leŕenak egiten ikusten dabezanian, boskaŕen leŕoko arerijuak urduriŕuten asi ei-dira, ta eurak dakijezan zokonduetan batuta eurentxubenak egiten.

Oŕei, eŕi-aldezlien agiriko arerijo oŕeik, batzaŕ-leku gustijak zaindu biaŕ ei-yakez, eta batzaŕtuten diran tokijan aŕtuta espe iminl.

Ixuŕi ori alde gustijetara edatu ei-da edatu be. Madrid'en be, Eŕkala'ren arerijuak, txitian-pitian jausten ei-dira eŕtzañen eskubetan.

Bilbao'n be astiñaldi bat emon biaŕ ei -yake, emen be arerijuak ba-dirala-ta.

"Euzkadi Roja"

Valencia'ko Gobernuari jazoten yakanatzaz idazten dau. Gobernu - zatitze au gaŕantzi gitxikua dala diño, len egon dan baño senduago jaŕiko dala-ta.

Azaña'ren argazkija argitaltzen dau. Eta Lateŕi-buruba dan gixon onegan jaŕten dau auzi onetan bere itxaropen gustija.

Orain aŕte iraun ixan dauan Jaurlaritza, gudea irabazteko eŕijak autetsija ixan dala diño. Eta baŕiro jaŕiko dana be, egiŕarau bardiñaz jaŕiko ei-da.

Jaurlaritza baŕija osotuko daben altseñak, geyenak lenguak ixango ei-dira, eŕitaŕ Jaurlaritza'n, osotuko daben altseñak beeŕitaŕak ixan biaŕ dirala-ta.

Oŕeik, paxiotaŕok, euren erako zabalgundia egiten asten diranian, mutillak dira, gero. Igazi dan larunbata ilunabaŕian, iru-lau izkuntzetan idatzitako ingitxu batzuk bota euskubezan egazkiñetatik. Tira, ingi-botatze arek ez gebazan urduriŕu, ingija beti be suaga -berunbija baño zarata gitxijagokua dala-ta. Alan, be, jausi ziran ingijetatik batzuk, batu egin ebezan, eta idatzita ekaŕena irakuŕten asi be baj.

⁂

Paxiotaŕak egazkiñetatik botaten dabezan ingijak, goizpaŕkiko egi gitxi irakatsiko dauskube. Goizpaŕkijari begiratuteko astiŕik ez dabe ixan be paxiotaŕak. Goizpaŕkijak baño ardura geyago emoten dautse, oŕei, Bilbao'ko euzko-uri ospetsu onek. Auxe, Bilbao aŕtziaŕen, goizpaŕkija ez-eze, goizpaŕ osua be aŕin salduko leukie, oŕeik, bata zeozer geitxubago be. Euren aberija atzeŕitaŕai Mussolini ta Hitler'i saltzen dautsenak, ¿zer ez ete-leukie salduko Bilbao aŕtziaŕen...?

⁂

Bilbao aŕtziaŕen leŕenak eta bost egun ixan dabezan paxiotaŕ oŕeik, Bilbao aŕtzia ifadotsetatik baŕikatan iñarduti baño nekezagua dala ikusi ixan dabenian, ingitxubak botaten asi yakuz, galduta gagozala, bai, ta eurekana juan gadizala esateko. Eurak ondo aŕtuko ei-gaŕubez. Ogi zurija emongo ei-dauskube. Zigoŕik baŕiz, gixa-erale gaizkiñen bateri ixan ezik, beste iñori bo ez ei-dautse ezaŕiko. Paxiotaŕak egazkiñetatik bidaldu ixan dauskubezan ingitxubok, donokitik jausiriko ingitxubak dirudije. Gotzon usaña dabe... (?)

⁂

Paxiotaŕak egazkiñetatik bota ixan dauskubezan ingitxubok, iru-lau izkuntzetan idatzita dagozala esan dogu. Eta ¡au gauzaren aŕigaŕija! Izkuntza oŕein aŕtian aurkitzen da gure euzkera maŕagaŕija be Donostia'n eta Gipuzkoa gustijan zigoŕpetuta dauken euzkerea, ingitxubetan idatzita dakaŕzkube... ¿Zeŕarako? Eurekana juan gadixala geure euzkera maŕe zoragaŕijan esateko.

¡Ondo aŕtuko ei-gaŕubez..! ¡Ogi zurija emongo ei-dauskube..!

⁂

Ogi zuri apuŕ bat gaŕik atzipetuten garanak garala-edo uste dabe paxiotaŕ gixagaxo oŕeik. Pesetearen zurijaz atzipetuta guda ezeskaŕi onetara ekaŕi ixan ebezan maiŕu-gixagaxuakin -edo bardindu gura gaŕubez. Euzkotaŕak nor diran ezagututeko astiŕik ixan be ez dabe ixan iñoz, oŕeik. Eta orajn, azken-aldiko esturaldijetan be, ezagututen ez gaŕubezaŕako egiten dabez buru-aŕinkeri gusti oneik be. "Ogi zuŕija emongo dauskubela baj, ta eurekana juateko...". Amuski-antzo erakusten daben ogi zuri apuŕaren juŕai, ¿juan egingo gayakezala uste ete-dabe, oŕeik

⁂

Lapuŕetako urunaz eta euzko-gudaŕijen odolaz egiten dan ogija, zuŕiz beŕik ez jako zuŕija baŕitz be, Euzkadi'ren semiak ez dabe onetsiko, ogi oŕi ez dabe jango. Lapuŕetako urunaz eta euzko-semien odolaz egiñiko ogiŕik ez dabe gura, ez, Euzkadi'ren semiak. Baŕtzena ta latzena baŕitz be, euzko-odolaz oŕbandu bako ogija jango dabe euzkotaŕak. Ogijaz bakaŕik ez da bixi, ba, gixona. Goizpaŕkiko egi au, paxiotaŕak ikasi biaŕ leukie..

⁂

Ez. Paxiotaŕakaŕe ezin juan ginteke. Arerijuak doguz paxiotaŕak, geure oñoŕlaŕijak (asesinuak) diŕa guda ezeskari onetako gudalburubak.

Agiŕipidia dauken euzko-uri ta basuŕijetan gobenduten daben euzkerea agiŕipideŕik ez dauken tokijetara saŕtu aŕ ixateko amuski-antzo ingitxubetan erakustja, etoyen egiñena da. Etoyai, baŕiz, ogi zuŕijaren ordez, donokiko atseden gustija ingitxubetan margoztuta erakutsiko ba'leuskube be, ez yake zinistu biaŕ, ez da jaramonik egin be. Laŕi-aldijetan ogi zuŕija erakusten daben etoyari, makiladiaz erantzun yako. ¡Bai oŕixe!

⁂

Euzkotaŕak guda-bidez iñok betu ez dauzanak dirala jakin beŕije, paxiotaŕ oŕeik. Espartero españaŕak be ez ebazan betu euzkotaŕak, Maroto'ren etoŕkerijak baño.

Franco'k gura leukena be oŕixe da: Bilbao'n beste Maroto bat iŕorotia.

Baña ez. Oraingo Jaurlaritza bere tokijan daguan aŕtian, Franco'k Euzkadi'n ez dau Maroto baŕirik iŕoroko.

Euzkotaŕen aŕtian etoyak iŕorotia, Queipo'ren izpaŕetan egija iŕorotja baxen gatxa da. Beraz, ingitxubak botaten dauskubezala, nai ogi zurija erakutsi, paxiotaŕak ez dabe toŕtuko, gu, euzkotaŕok eurekanduterik. Ez oŕixe.

⁂

Atzoko eguna, guretzat gentza-zaljontzat, Queipo guzuŕtijarentzat txaŕa ixango ba-zan be, ondo edeŕa ixan zan. Luŕa legoŕtuta daguanian' euri zapaŕada mamintsuba lakorik ez da ezer ixan be.

Eta atzo, aspaldiko ordez, euri zapaŕada mamintsuba lakorik ez da ezer ixan be.

Eta atzo, aspaldiko ordez, euri zapaŕada polita egin eban. Gure baratzaetako ta zelayetako loraen ganera jaurtjan, euri-jauste arek edatuko eban poza ta atsegiña, euzko-bijotz askotara elduko ziŕala uste dogu.

Solube, Jata, Bizkargi ta onein ingurubetan gudatuten diran euzko-gudarijak aŕtuko eben pozaldija be ez zan txikija ixango. Gixagaxo aundijak, aŕa kuak, egazkin-suagaz okotzetaraño beteta aurkitzen ixan dira, ba. Atzoko eguŕia, egun edeŕa ixan zan euzko-gudaroztientzat, baŕa guda-atzetijan bixi garanontzat be. Asalda-turuta joten dabena be nozik ixango zan atzo.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Euzko Gobernuko ta Generalitateko Lendakariak baŕu-buŕutiko uŕutidatzi sutsu bana zuzendu diote alkaŕi

Mendiguren jaunaren azalpen jakingaŕiak.-Luisa jaunaren oar eta argibidea.-Izkilluak batzeko agindua.-Geiegi-zaleai ezaŕitako isunak.

Lendakaritza

ATZOKOA

Lendakaritza Zaingoan ez zan atzokoan izpaŕingirako beŕi aipagaŕirik izan.

Lendakari jaunak eguneroko eskuartekoak erabakitzen eman zuan atzokoa.

BI UŔUTIDATZI

Basaldua'taŕ Kepa idazkaŕi bereziak bi uŕutidatzi eskuratu zizkigun, Euzkadi'ko Gobernuko lendakariak Katalunya'ko Generalitat'eko lendakariari egiña bata ta Generalitat'eko lendakariak Euzkadi'koari egiña bestea.

"Bilbo, giltz, oroen begiragaŕi, gerokoaren kutxa, oldartzen ari dan paxismoaren aurkako guduketa ontan, euzkaleŕiak odola-odol ixurtzen diarduan une gordiñotan, aren katalandaŕ eŕi maite ta zindo oŕi, zutitu ta buru ta biotz ikuŕitz auxe biotzeratzeko daskaiot: Zortzi egunen buruan Katalunya osoa askatasunaren aŕerioa zapaltzera auŕera ta kemenik-kemenen. Euzkadi'k odolez eta Katalunya'k buru ta biotzek ekiñez, gaindu ta azkena eman bear diote paxismoaren asitako eriotz-orduari. Betiko adixkidetasun-miñez Euzkadi'ren izenez agur dagiot Katalunya ospetsuari."

Generalitat'eko lendakariarenak auxe dio:

"Katalandaŕ eŕiaren baŕu-baŕutiko ta agiŕik sutsuena bialtzen dizut. Katalunya'ren naia, abeŕi-miñez, zuk esan bezela, egi biurtua da. Gizonak eta biotzak eŕuz ditugu. Erkal-gobernuak izendatutako Sortaldeko Gudazteko Burukideak laisteŕenik-la'steŕen oldarketa zapaltzailea asteko neuŕiak artuko ditualakoan gaude. Anai-besarkada ta geure maitasun eta gora-miña Euzkadi'rentzat."

MENDIGUREN JAUNARENFAN

Mendiguren jaunarenean ere izan gen dun aldi atzokoan.

Bilbo'ra etoŕitako iru aldunen beŕi eman zigun lenengo Mendiguren jaunak. Lendakari jaunarekin jardun-aldi izan zuten.

Gudaoiñean izan ziran irurak, gudateari buruzko bat aurkezteko dute Belgika'ko Aldun-batzan eta atzeŕitaŕak ere gudate ontan baŕuko dirala dagerten ainbat agiri erakutsiko dituzte.

Blune, Bosset eta Anssele dira.

Van Zeeland lendakariari Bilbo ustutzeko-arazoa arduraz jasotzeko eskatuko diote iru belgikaŕ aldunok.

Osasun Zaingoa

OSALARI TA GAIXOZAINEMEAK ERATZEN

Osasun Zaingoko burukide Espinosa jaunarekin lotu giñan une batez izparkariok. Frantze ta Inglateŕa'ra dijoazen eŕikatu edo eŕefujiatuakin bialtzeko osalari ta gaixozaineme-taldeok eratzen ziardutela esan zigun Espinosa jaunak.

EGAZKIÑAK ZAURITUTAKOAK

Osasun Zaingoko Zuzendaritza Nagusian Basurto'ko Eritegiŕa eramandako zauriŕtuen izen-saila eskuratu ziguten.

Rosillo'taŕ Joseba Koldobika, 23 urteduna, Lemona'n.

Aretxabalaga'taŕ T., 11 urtedun, Lemona'n.

Aretxabalaga'taŕ Benin, urtebeteduna, Lemona'n. Il da eritegiratu zuten.

Zuloagataŕ Marte, 36 urtedun, Lemona'n.

Uriarte'taŕ Joseba Andoni, 8 ilabetedun, Zornotza'n.

Egidazu'taŕ Eŕapel, 49 urtedun, Zornotza'n.

Abaitua Silva'taŕ Karmele, 36 urtedun, Zornotza'n.

Solagaren'daŕ Juli, 30 urtedun, Lemona'n.

Eŕi-zaintza

LUISA JAUNARENEAN

Zaingoko idazkaŕi nagusi Luisa jaunak Burdeos'etik jasotako uŕutidatzi baten beŕi eman zigun izparkarioi. Uŕutidatziak dionez, "Habana" itxas-ontzia aŕatsaldeko 7,40 ordutan erdu zan, ezeŕen okefik gabe eta bidean amairu ordu eman ondoren.

Atzo goizez Pauillac erduko zan.

Gaur gaberako beste joan-aldi bat gertutzen aŕi zirala gaiñeratu zigun Luisa jaunak. Lau mila lagun bialdu nai dira, iru mila eŕikatu edo eŕefujiatuak eta eurenez bizi al duten mila.

"Cabo Corona", "Galea", "Lutxana", "Zufiola" ta "Goizeko Izaŕa" ontzietan egingo dute aitatutakoak euren joana.

Gero, zertzubatzuk izpaŕingian argitzea nai lukela esan zigun Luisa jaunak jendea kanpora bialtzea dala-ta, askok ganora gabe beŕiketan diardute. Ez dira eŕefujiatu geiago bialtzen, Frantze'n ez daude oraindik bear ainbat leku gertu-ta. Baiña gertu daudenean, al duten guztiak izango dute ara joatea. Orain ere, iru milentzat lekua gertu dutela jakin-erazo digutenean, bat-batez bialtzen ditugu iru mila eŕefujiatu edo eŕikatutako. Eta laister ugari joango dira.

Nekazaritza

ABELGOŔIAK BILBO'RA EKAŔI DITUZTENAI

Agertu bitez al dutenik laisteŕen Nekazaritza ta Aberetegiko Zuzendaritza nagusira euren eŕiak ustu ta Bilbo'ra abelgoŕiak ekaŕi dituztenak, zenbat abelgoŕi -buru ta non dauzkaten jakin-erazotzeko. Agertu bitez lenbailen, abelgoŕiontzat pentsua banatu bear da-ta.

Saleroskeŕa ta Orniketa

EMAKUNTZAT

Atzokoan ez zan izpaŕik Zaingo ontan. Eguneroko etengabeko lana zuten bertakoak.

Orniketako Zuzendaritza Nagusian Gizarte - Laguntzarako jasotako emakuntzen beŕi eman ziguten.

Unamunzaga'taŕ Dioni jaunak, 25 laurleko.

"Chimbo" jatetxekoak, 100.

Zaragueta'taŕ Joseba jaun eta sendiak, 25 laurleko.

EZAŔITAKO ISUNAK

Goikoetxea'taŕ Isidor'i, ogia beaŕ ez bezela egin dualako, 100 laurleko.

Goitia'taŕ Gotzon'i, ogia bear ez bezela egin dualako, 100.

Agiŕe'taŕ Kepa'ri, ogia bear ez bezela egin dualako, 100.

Gutierrez'daŕ Karmele'ri, naranjak garesti saldu ditualako, 25.

Cano'taŕ Estanisla'ri, naranjak garesti saldu ditualako, 25.

Cuadra'taŕ Monike'ri, naranjak garesti saldu ditualako, 25.

Cuevas'taŕ Keperin'eri, debekatuta egon eta aragia jaten eman dualako, 250.

Perez'daŕ Gotzon'i, malubiak zortzi laurlekoz saldu ditualako, 50.

Lekerika'taŕ Markos'eri jatetxean, azpil bakaŕari dagoklon agiririk euki ez dualako, 100.

Bustintza'taŕ on'i, jaboia garesti saldu dualako, 100.

Astorki'taŕ Gotzon'i, bear dan beste ogi banatu ez dualako, 100.

Bilbo'n 1937'gnko. loreilako 16'gnez.—Zuzendari nagusi, G. Beltran'daŕ Paulin.

ERE BOŔDATXOTIK

Bildutako sortatxoak

Valencia'ko Gobiernoa poŕot eginda dagola.

Edeŕa bertsoa garai ontarako. U. G. T.'ek iru ministru ditun bitartean C. N. T.'ek bi eukitzea ezin leikela, Largo'ren agiriarekin komunista alderdia ez dala konporme, sozolistoak beste nornaik aña eskubide ba'dutela... korapilo au azkatuko duan itxas gizonik ez duk.

Baña... jaunak! Geŕan gaudela gero, eŕ Zuek kontuak atera ezean beste batzuk aterako dituztela.

Aundia duk or beti "solfa" berdiña izatea...

⁂

Irujo jaunaren iritzia ezin da egokiagoa noski.

Europa'ko naziorik indartsuen eta gogoŕenen aurka ari gera geŕan. Oŕegatik ba, guri ere auzo lateŕi aundi oiekin ondo egotea komeni zaigu; nai ta naiezkoa degu. Etxe baŕuko buŕukak joan ziran pikota, orain atzeŕi otso zakar oiengandik libratzen ba'degu lanik asko.

Negrin, Prieto edo Besteiro'k agintaritza artuta, talo burnia alderuntziz jiŕa ditekela deritzagu.

Taŕ... oŕi begiratu bear zaio. Ez alkar arteko matxinada edo eŕeboluzioa sortzeaŕi.

Baña... aruzkalde ortatik aize berdiña beti...

⁂

Zugazagoitia'n artikulua irakuŕi gendun larunbateko "Lucha de Clases"en. Egunero ezpañetatik kendu gabe darabilgun kontu ori astintzen zuan.

Zorioneko txoŕi kontu ori gizona!...

Pozak bultzata egindako lana zirudin.

Eragozpen denak apurtu ote diraŕ, galdetzen zuan aurena. Gero irakuŕiaz baietz zirudin. Denbora gutxi baŕu a'dakuntza gogoŕak izango ote ditugun edo...

"Voy al encuentro de la gran noticia. Y espero volver con ella."

Bueno, bueno, bizkor ibili ta agindua bete.

Orduan i ta ni
adiskide beti.

⁂

Uŕutiko "heroismoa" aotik kendu gabe darabilten oiek ez digute batere onik egiten. Zorioneko Madrid beintzat;...

Emen aña "heroismo" azaldutako tokiŕik ba al da munduan?

"Cervera" ta "Canarias"i arpegi emateko, "Gipuzkoa" ta "Bizkaya" izeneko bou zaŕak. Egazkiñak lurperatzeko pusileroak.

Nun bota dira bi egunetan lau pusilakin?

Bilbao aldezteko txoŕi bat gabe gu gauden bezela...

Ta... emen ez dala "brigada internacional"ik beste toki batzutan bezela. Beste eŕi oieŕi guk ez diogu ezer kentzen, baña Irun'dik asi ta Ventas de Zarate, Ernio, Andazaŕate, Elgeta, Bizkargi ta Solube'n agertu dan baño "heroismo" geiago iñun ez dala agertu lepoa jaŕiko genuke.

Emen ez dago koplik. Egintzak testigu.

Baskuentzez esanda,
ekaŕi goiko mekanismoa,
orduan ikusiko dezute
zer dan heroismoa.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu baga esan ol-eban Arana -Goiri gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

Euskotaŕa gudari

Txikia zera lur zabaleraz
Biz'-lagunez uŕja,
Labuŕ-labuŕa ageri zaitzu,
Euzko, edesti argia.

Nundik noraka etoŕi zeran
Norbaitek badu galdetzen,
Zenbait jakintsu eruntzun asko
Aritu dira asmatzen.

Ludiak eztu alderdirikan,
Aize-oŕatza inguru,
Bateren batek eman gaberik,
Euzko, zuretzat sorburu.

Zure abendaz, zure izkuntzaz,
Iŕitzi asko ditugu;
Ajaro baiñan zure sustraiak
Argitu gabe djtuzu.

Gorputzez sendo, itxuraz ederŕ
Zure mendua zer duzu?
Dantzari ajaj, betiiun nagi.
Gudari ala paketsu?

Voltajre zanaren ustekeriaz
Auñemendiko dantzari;
Beste zenbaitek egin zaitue
Uzkuŕ, ixil, its, basati.

"Italikusek" esana dugu
Guduz ziñala bizitzen;
Buŕuka gabe bizi ezinik,
Altzetik bera amiltzen.

Soiñeko axal, janari labuŕ,
Eŕedola ta ezpata,
Otz eta berok ikaratzeke,
Guziz ariña laisteŕka.

Ikusi zala zure aŕean,
Eŕomataŕa igeska,
Zure ausardi neuŕigabeaz
Izu-ikarak aftuta.

Beste zenbaitek esan dizue
Odol zuria zerala;
Pakezalea, zure barnean
Griña bizirik eztala.

Itxaso zabal, urdin, barea,
Ajzeak jota, afotu,
Euskoren gogo samuŕ eztia
Zitaltceriak arkaltzu.

Euskok maite du pake gozoa,
Badaki dantza egiten:
Baiñan eztaki, guda sorturik,
Garaitu arte etsitzen.

SABIAGA.

Irakurri ta zabaldu Eguna

Bizkai'ko Udalak

Bizkai'ko Udalak euren etxeak nun ipiñi dituen agertzen dogu. Eŕitaŕak euretara juan beitez gora-berariik dabenetan.

AREATZA: Gran Via, 11.
ARBAZEGI GERIKAITZ: Gran Via, 11.
AMOROTO: Sabin-Etxja'n.
ARAZUA: Sabin-Etxja'n.
AXANGIZ: Euskalduna, 8. Espartza'taŕ Serapin'en etxean.
BERMEO: Sabin-Etxia'n.
BERIATUA: Sabin Etxia'n.
BUSTURIA: Plaza Eliptica, 8. Laugaŕen etxoñian.
BAKIO: Zala'ko ikastoletan.
DIMA: Gran Via, 11.
EA: Sabin-Etxja'n.
ERIGOITI: Avenida de las Universidades, 43 (Deusto). 10.538 uŕutizkiña.
EREÑO: Arenal, 3. Laugaŕen etxoñian.
ELOŔIO: Gran Via, 11.
ETXANO: Gran Via, 11.
ELANTXOBE: Ledesma, 2. 12.271 uŕutizkiña.
FORUA: Sabin-Etxja'n.
GERNIKA: Rodriguez Arias, 8, iruŕaŕenean (Hotel Carlton).
GIZABURUAGA: Sabin-Etxia'n.
GAUTEGIZ ARTEAGA: Santa Maria, 13. Laugaŕenean.
ISPASTER: Algorta'n, Abasolo, 49.
IBAŔURI: Garcia Hernandez kaŕean, Laspel (gas) olean.
IBAŔANGELUA: Ledesma, 2. 12.271 uŕutizkiña.
KORTEZUBI: Sabin-Etxja'n.
LEKEITIO: Escalinata, 10, Algorta'n Galdiz'en jauregian.
MURELAGA: Ertzila, 19.
MUNGIA: Sabin-Etxia'n.
MENDEXA: Sabin-Etxia'n.
MUXIKA: Sabin Etxia'n.
NABARNIZ: Sabin-Etxja'n.
ONDAROA: Santa Maria, 13, laugaŕenean.
OTXANDIANO: Santa Maria, 13 laugaŕenean.
ZEANURI: Gran Via, 11.
ZENAŔUTZA: Gran Via, 11.
MARKINA: Rodriguez Arias, 8, lenengoan (Hotel Carlton).
XEMEIN: Bardin.
ETXEBAŔIA (Ander Deuna): Bardin.

ATZERRIKO IZPARRAK

"Eutsi eŕi bakoitzak oro eŕik euren jatoŕiari eŕotua duten azkatasunari"

Goragaŕi dute Paris'en ere euzko-gudaria. - España'tik joandako bi milla gizaseme atera egingo dituzte Gibraltar'etik. - Frantze'ko Guda-Agintaritza Nagusiko Gamelin gudalburua burezkunde-jaietan. - "Hunter"erena aztertzeko batzordea. - Londres'eko Batzaŕak. - Belbil-langilleen opoŕa amaitzen. - Eskubi aldeko izpaŕingiak beeraka Paris'en.

DELBOS JAUNA'K LONDRES'EN DARABILAZAN AUTUAK

Londres. — Londres'en egon dan arte, Delbos jaunak Ingelateŕa'ko Ogasun Zaingoko burukideakin jardunaldi luzeak egin ditu. Delbos jauna ta Ogasun arduraduni aburu bateko dira.

Foreing Office'k eŕegeei emon eutsen guruntzean, be, izan zan Delbos jaunoi, Eden'en etxean bazkaldu eban igandez.

MUSSOLINI'REN EKONOMI -ABURUAK

Roma. — Langile-Basbatzen batzaŕean Mussolini'k Italia'k beretzako beste bere ailetan egin beaŕa dabela iñundik al baina adieraso dau ta ekonomi-jokalege ori aŕkari eusteko biderik egokien dala.

Beste lateŕiak agiñetaragiño izkiluz beta ta gudea egiteko eskuartea eukirik geŕiok, Italia'k beretzako be-zenbait Italia'n ez ba-dagi, Italia orniduta dagozan menpeko biurtzen da.

VATICANO'N GUDEA BIGUNTZEARI ONDO EI-DERITXOE

Vaticano.—España'n eta Euzkadi'n maŕiñadeol biguntzeko edo gizonei yagonenez egin daiten zerbait egiteko gertu dagoz Vaticano'n agintarien artean esan izan danez. Ingelateŕa'ko Eŕegea'ren Bureskundea dala-ta, Doipurua'ren ordezkariak Doipurua'ren asmoak erdi-azaldu gin ei-dauz. Gudan diñarduen alderdiei buruz "mistik" ez ei'dau esan.

LONDRES'KO BELBIL-LANGILIEN OPOŔA

Londres. — Londres'ko belbil nagusien ordari ta langileen opoŕa asteburuko ambagi edo amaituko dala uste da. Erakunekaŕi Artezkaritza'k, eta U. G. T.'k auria arakatzen jardun daben epaikarien agiriari buruz egindako idazlana emon diotse euron batzoki ta langile-taldeei.

Epaikarien agirioi-bide ugazabekin arkomonetan asteari ondo ei-deritxoe langile-batzen artezkariok; belbil-langileen atzordearen eskabideak ez dira onartzen agiri oŕetan.

Belbil-langileok 19.235 dira ta oŕeitatik 17.459 langilek euren eskabideei eustea ta oŕean jaŕaitzea erabagi eben: eskabideotatik bat egunean saspi ordu ta erdi lanean egitea da. Sindikatuen batzordeak Londres'ko eramaneka'i lanetan diñarduen beste langileak opoŕean asteŕik ez dau nai.

EUZKADI'REN ALDE

Paris.—Euzkadi'ko gudarien alde agerpen maŕdula egin zan Paris'en; agerpen oŕetan Euzkadi'ko ta Catalunya'ko ordezkaritzak tarteko izan ziran.

KOMUNISTAK ZIGORTU

Hamburgo.—Alemania'n len komunista alderdiko izan ziran batzuk, Moscu'ko radioa edo iŕatia entzuten ebelako, epaikariak urte bitik sei urterako lanetara beartu dabez ta zigortu.

EŔEGEAREN JAIAK

Copennague.—Uri onetan eŕegearen zidaŕ-esteguak ospatzen dabez; egualdi edaŕa dago. Kaleak apainduta ta ikuŕiñez orniduta dagoz ta notiñez beteta. Gudontzi ta kañoiak olako jaietan jaurti oi dabenez, dunbada batzuk jaurti dabez.

GIBRALTAR'DIK ATARA EGINGO DABEZ

Gibraltar. — Aldi onetan Gibraltar'en Españatik aldendutako 2.000 gizaseme inguru ei-dagoz ta gizaseme oŕeik Gibraltar'dik alde beaŕa izango dabe kontizu.

España'ko konsulari osasunaŕen eta Gibraltar guda-tokia dalako, españaŕ oŕeik alde egin-beaŕa izango dabela adierazo dautse Ingelateŕa'ko ordezkariak.

Ingelateŕa'ko gudontzietan erkaldaŕen mende dagozan sailetara juan nai dabenak, sail oŕeitara edo portuetara eruango dabez ta asaldarien artera juan nai dabenak La Linea'ra eruango dabez.

ALKAŔ EZAGUTU DABE TA ADIZKIDE-BIDE IZANGO ETE DA?

Londres.—Bureskunde jaiak ospatzeko asmoz Londres'ko Alemania'ren ordezkaritzan egin dan "aŕeran" Prantzia'ko Guda-Agintaritza Nagusiko gudalburu dan Gamelin jauna, be, izan da.

"Morning Post"ek uste dabenez, gudalburu oŕen eta von Blomberg mariskalaren artean politika artuemonak asi daikez ta astea ba-daike. Jai oŕeik dirala-ta, Europa'ko gizonik urtenenetariko bik alkaŕ ezagutzeko zoria izan dabe.

"HUNTER"EN ZULOA DALA-TA

Londres.—Ingelateŕaŕ "Hunter" gudontziai aren azkar laguntzera juan ziralako, Ingelateŕa'ko Itxas Agintaritza'k euren eskaŕ ona agertu dautse españaŕ erkaldaŕei.

Valencia'ko izpaŕak diñoenez, "Hunter" ori zerk, zulatu eban jakin al izateko españa ingelateŕa aituz osotutako batzordea sortu da. Batzorde oŕek bere lana asi dau.

"Hunter" ori 1936'gn. egiña zan, 3.350 tonelada eruan eikezan, lau aŕako ta amaŕ amareuneko lau kañoi eukazan, beste saspi kañoi txikiago ta "torpedo" jaurtzeko tramankulu bi. 415 gizon eukazan bere gudari-sailean.

GIBRALTAR'EN IXILIK-MATUKA

Gibraltar. — "Reuter" Izparbatzaile-batzak adierazo dabenez, orain egun batzuk Gibraltar'era begiko ez yakoen erbestetaŕ bat eldu zan. Gerotxoago Salamanca'tik Franco'ren Guda-Agintaritza Nagusia'k bialduta beste jauntxo bi etoŕi ei-ziran. Jaun oŕeik eta beste erbestetaŕ oŕek "txutxuputxu" asko erabili ei-eben. Nor ete zan?

LONDRES'KO BAKALDEŔI BATZAŔAK

Londres.—Izpaŕingiak Bakaldeŕi Batzaŕa-askundean egin ziran itzaldiei buruz, iru autu oneitxek esten dabez aipagaŕien: Azkatasun-elburuari eustearen gaŕantzia, erbeste-arazpetan politika jokabide bakaŕa aukeratzea ta alkaŕ zaintzeko alkaŕi laguntzeko gogo sendoa.

"Morning Post"ek diñonez, itzaldietan "danoi yagokuezan elburuak lortzeko alkaŕi laguntzeko gogoa ta bakearen alde Bakaldeŕiak egin al daiken guztia egiteko asmoa" agiri dira.

"Manchester Guardian"ek auxe diño:

"Apirka baŕenean asi ta Atlantiko zeaŕ itzaldiok gauza bat adierazo eben; eŕi guztiei jatoŕiz yagokuezan askatasunei eusteko, danok al daikenez alkaŕi laguntzeko asmoa dabe ta erabagi orixe azaldu zan itzaldietan".

ERTZAIÑEI JAI

Londres.—Bureskunde jaietan lanik asko izan ebela-ta, atsedendu daitezan Londres uriko ertzaiñei iru eguneko jaiak emon dautsez.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK
GORBEA Y C.ª
41'gn. Alameda de San Mamés txaidian
11447 Ufutizidiña

Trenen ibillerak

Beste agindu bat agertu aŕte, trenen orduak onetxek izango dira:

Bilbao	Urteerak	5,30	20,05
Etxebaŕi	"	5,38	20,13
Aŕiz	"	5,42	20,17
Zuazo	"	5,48	20,22
Usansolo	"	5,56	20,30
Lemona	"	6,04	20,38
Amorebieta	Elduera	6,11	20,45
Amorebieta	Urteerak	5,20	6,30
Lemona	"	5,31	6,38
Usansolo	"	5,40	6,43
Zuazo	"	5,49	6,51
Aŕiz	"	5,55	6,56
Etxebaŕi	"	5,59	7,00
Bilbao	Elduera	6,07	7,07

IGANDEKO GUDA-IZPARRAK

ERDIALDEKO GUDA-OIÑETAN

Madrid. — Erdialdeko guda-oiñetan igandea bare-samar igaro dabe; Madrid ondokoetan batez, be, bare-bare igaro dabe. Afatsalde beluan eta iluntzaŕean erkaldaŕen suagalariak Usera, Carabanchel, Garabitas, Ciudad Universitaria ta La Coruña bitxabal inguruak eta sailak guagatu dabez, baiño bizi suagatu, be.

Paxiston sailok astindu-astindu egin zitean erqaldaŕ gudariak paxiston indaŕak neurtzeko asmoz, aurerakada ta buruka-ekiñaldi batzuk egin dabez. La Coruña bitxabal inguruetan buruka ekiñaldi bizia egin ondoren sail baŕak eurondu dabez ta len euzkezanak endoagotu. Uritik aldenduta dagozan guda-oiñetan egazkiñak eta suagalariak egin dabez guda-ekiñaldiok. Avila'ko sailetan erkaldaŕ-suagalariak Navalperal de Pinares'en paxistak daudezan guda-tokiak suagatu dabez. Navalperal de Pinares ta inguruetan mutiko ta guda-tresna gordelekuren batzuk apurtu ta sutu dabez ausago kredi batzuetatik su gaŕ eta ke aundia atara zan-eta.

Guadalajara Ipaŕaldean suagalarien jardun bizlak izan ziran eta Almadroñes aurean erkaldaŕak euron guda-tokian baŕiak auferago egin ebezan.

Tajo Egoaldean paxistei oraintsu sendotako sailak sendotzen bizi-bizi diñarduе ta erkaldaŕen suagalariak paxisten guda-toki ta guda-lubanak suagatzen jardun eben.

Erkaldaŕen egazkiñak paxisten guda-tokiak batez, be, izkiliu-olea, Tajo'ko zubiak Senbanda Deunaren ilerі ta gaztelua suagatu dabez; ilerі ta gaztelu oŕetan eukezan kañoi batzuk kendu beaŕa izan eben ausago paxistok.

Las Navas aldean eŕi barurago atzeratu beaŕa izan dabe paxista-gudariok erkaldaŕen bultzadei eutsi eziñik. Las Navas'en erkaldaŕen suagalariak paxistok eukezan etxe batzuk apurtu dabez.

Erkaldaŕ egazkiñak ikusketak egiten ibill ziran aŕatsalde beranduan eta Madrid ondoan paxisten kañoiak ixildu egin ebezan.

ASTURIAS'KO GUDA-OIÑETAN

Tenderina'n erkaldaŕak dabezan guda-tokien, aurka joaldi bizia asi eben asaldariok. Escampiero'n suagalarien arteko buruka zital-zitala izan zan. Leon'go sailetan oraintsu erkaldaŕak asaldarion kendu eutsezan sailak atzera eurendu egin nai izan dabez paxistok eta erasoka asi ziran: erasooi eutsi egin eutsen erkaldaŕak eta Lillo inguruan sail baŕiak eurondu ebezan.

Erkaldaŕonzana kabo bat eta ogetabi gudari etoŕi ziran, izkiliu ta guzti etoŕi, be.

Guda - izpaŕak

España'ko guda-oiñetan bare ta epel; suagalariak buruka batzuk eta egazkiñak, be, asko ei dabiltz. - Valencia - suagatu eben paxista - egazkiñak. - Egazkiñen buŕukak.

VALENCIA SUAGATU

Valencia. — Igande aŕatsaldez paxistak Valencia suagatu eben eta 30 il eta 150 zauritu ziran. Prantzia'ko konsul-etxetik ogetamaŕ metrora jausi zan suaga bat, etxe oŕetako leiaŕ guztiak apurtu ebazan; baita "Havas" Izparbatzaile-Batza etxekoak, be.

Zauritutakoen artean Ingelateŕa'ko ordezkaritza'ko Chamberlain kondea da bat. Eŕi Zainketa arduradunak emetik aurera gabaz uriko enparantza ta kaleetako argiak itzaltzeko ta etxetako argi-izpirik kanpotik ez daitela ikusi erabagi dau.

BUŔUKA IKUSGAŔIA

Cariñena. — Aragon'go guda-oiñetan buŕuka ikusgaŕia izan da. Zaragoza suagatzera atera zan egun argitan erkaldaŕen egazkin aundi bat. Suagatu ebazan Zaragoza'ko guda-tokiak eta suagaketoi egin ondoren, bereganuntz paxisten iru eizako etozala ikusi eban.

Oindiñokaŕen eukazan suagak jaurti ta koldartzeka jira-bira batzuk egin ebazan eta eizakuoi iges. Oŕeik iges uazala erkaldaŕen iru eizako agertu ziran. Jaŕaitu eutsen Zaragoza'runtz uazanoi ta Zaragoza gaiñean paxistenokin buŕukan asi ziran eta minutu gitxi baŕu paxisten bat bera jausi zan.

Erkaldaŕen irurak biurtu ziran euren tokira.

GUDA-OIÑETARA BEGIRA; SUAGALARIAK ETA EGAZKIÑAK

Madrid.—Egunotan ez da izan Madrid ondoko guda-oiñetan buŕukarik; atzo be, lengo egunotan baizen bare egozan buŕukalariok.

La Coruña'ko bitxabalean, Garabitas mendian, Ciudad Universitaria'n eta Andalucia'ko bitxabalean suagalariak bizi-bizi jardun dabe oŕaitiño ordu batzuetan.

Paxisten kañoien aurka jardun dabe erkaldaŕenok.

Manzanares ibaia igaroteko lenago egin eben zubia eurendu nai izan eben Ciudad Universitaria'n dagozan asaldariak.

Erkaldaŕen suagalariak lenengo ta guda-burdiekin gudariak gero paxistoi nai ebenik lortzen ez eutsen laketu ta edozein bat gorpu laga ebezan jasoteko.

Santa Cristina'n Eŕuki-Etxetik Hospital Clinico'n egozanei lagundu egin nai izan eutsen eta janariz ta munizioz ornidu, baiña ez eutsen laketu.

Guadalajara Ipaŕaldean eta Avila'ko sailetan, batez be, Navalpinares inguruetan suagalariak eten gabe jardun dabe.

Tajo Egoaldean, be, erkaldaŕak guda-tokiak sendotzen eta paxisten indaŕak neurtzen jaŕaitu dabe.

Suagaleriak paxisten atze-aldea. Toledo bera, be, bai etengabe suagatzen dabe. Egazkiñak paxiston guda-tokiak suagatu dabez ta paxistoi egunez iñora zirkiñik egiten ez dautse laketu.

Egazkiñak beste sailetan, be, ikusketak egiten ibili dira. Tajo Egoaldeko paxisten guda-tokiak be, suagatu dabez.

AŔOTZ BAT TXAŔA DA EUZKADIRENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAŔAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTAŔA.

Eskubi aldeko izkaŕingiak beeraka

Zer izan du "L'Echo de Paris'ek"

Paris. — Paris'eko izpaŕingiak, politika-arazoan ere eŕoak luze ta zabal edatu ditu gertakizunak-eta, itzpidea ugari sortu dute.

"L'Echo de Paris" egunkariko irarle-izparkari nagusi Henry Simon'ek bertan bera utsi du bere lanbidea ta, bereala, izparkaŕirik nagusienak ere, Henry Kerillis eta Raymond Gartier baŕuko dirala, izpaŕingi ortan Gobernuaren aurka gordiñen jardun dutenak bata ta besea, utsi egin diote izparkintzari. Pertinex'ek, aspaldiotako urteotan bere idazlanak apalago idatzi dituanak, ez du besteen bidetik jaŕaitu.

Diotenez, Simon'ek ez du egin egin duana politika bide, banakaritza-arazoa bide baiño. Simon'ek, berenez adizkide ugari ditu, "L'Echo de Paris" bere aita ta berak geienbat sortu zutelako.

Gudaroste ta Eleizaren aldeko ordezkari zan izparkari au, baiña, azkenengo aldiotan, Kerillis'eren buruz, españaŕ paxistaŕakin bat-bat egin zan; Franco buruzagia "ezpata aintzagaŕi" etsitzeko bestez bat egin ere.

Itzpidea ugari sortu duan beste gertakizuna beste onako izpar onek diona da: lorelіako 24'gnez. "La Liberte" egunkariaren artezkari komunista izandako Dorriot'daŕ Jucques izango da, gaur Piderad komunista-aurkako alderdiko zabalkundelari dana.

Idazle ospetsuak badituala esan du Dorriot'ek, politika lokaŕi ez duten idazleak.

"L'Echo de Paris"en Kerillis eta bere alderdiak izan duten jokera, Hitler'en aldeko etsi dute komunistak.

Frantze'ko beste izpaŕingiak, Gobernuak lortutako iragarkiz bizi ziranak batez ere eta iñoren emakuntzetatik bide dutenak, kilin-kolonean daude. Asko izpaŕingi gero ta gutxiago saltzen dira, eskubi aldeko asterokoak eta paxistaŕen aldeko egunerokoak batez ere.

MUSSOLINI'REN ehonomi - jokabidea

Italia'ren ekonomi jokalegeari buruz, Italia'k beretzakoa bertan egitea goratuaz Paxista-Langile kidekatu Batzen Batzaean itzaldi bizia egin dau Mussolini'k. Colina Capitolina'ko Julio Cesar'en aretoan oŕein batzaŕean datoŕen urte guenera-orduko Italia'k bear daben adiña gasolina Italia'ko sailetan izango adierazo dau.

Italia'k Italia'n beaŕ daben guztia egin eta sortzeko asmo oŕeri ez ei-dautso lagako ta ekonomi-jokabide ori lagatea Italia nai bezen bat jaki ta ostingo gauza dauken lateŕien menpeko egitea izango ei -litzake.

Ekonomi-guda lokaŕiz itoko daben bildufa daukenak ba-daki zer egin eta nundik jokatu. Ekonomi-jokabideoi gudean gaŕantzitsu dala-ta, ekonomi-sailean ondo ornduta egotea bake-bide ta lateŕi aberatzen aginkadea eragozteko bide dalako, bururatu ei-yakon ekonomi-sailoŕi ekitea.

Italia'k ekonomi buru jaubetasun eta ekonomi-saileak beretzako bezenbat egin al dagian, Abisinia bere izatea beaŕeko ei -yako, Abisinia oŕetan algodoi, akeita, okela,naŕu ta zurik naiko dauka-ta.

Burdin-gintzatan auŕerakaderik aundiena Italia'k egingo ei-dau. Igaz 300.000 tonelada burdin egin ebazanaŕen aurten 1.100.000 tonelada egingo ei-dauz.

Urtean amar amabi miloi tonelada aŕi -ikatz erbestetik eruaten ei-dabez; aurten miloi bat tonelada euren sailetan atarako ei-dabez ta laster lau miloi tonelada, be, bai urtean, "Beste beaŕizanak nork ornidu izango dogu ainbat lateŕiren artean", esan eban Mussolini'k. Beste gai batzuez, be, Italia'n bertan orniduko ei-dira laster.

Nekazaritza ta gintza aundiari buruz, Gobernua'k sail oŕeik, be, bere zuzendaripean artu ebazanaŕen, beretu ta berai deritxonez zuzendu ez ei-dauz egingo.

Neke gabe, jan gitxikin edozer emoten eben lufaldeak ez ebazala eskatzen esan eban aŕiago, txiroago diran sailetan be, italiaŕak lanaren bidez eurak beaŕ dabena ataraten ba-ekiela-ta.

Berak esan ebazanak egi biurtzen laster ikusiko ebezala adieraso eutsen.

Etiopia'ko aberastasunak gondu edo aprobetxatu al izateko bakea beaŕeko zanik ez eban esan Mussolini jaunak, baiña bakerik izaten ez ba-dau alpeŕiko yakoz aberastasunok ezin gondu al izango dauz -ta.

"LA DEPECHE„'TIK

Katalunya'ren etorkizuna ta Santander'eren azkatasuna Euzkadi'n eŕotuta daude

Bilbo, "uri esi-eziña" bein geiagoz, Santander'eren azkatasunaren oiñaŕi da; Asturias geure esku eukitzeko bide da; ipar-aldeko euzko-erkaldaŕen mina-leku aipagaŕi da; Burgos eta Gazteiz'eren aurkako etengabeko zema da; ipar-aldean Franco'ren aldeko gudatalde ugarik diardute jo ta su. Batez ere, baiña, era erkaldaŕen barne -giroa piztu ta jasoko luken eragozpen; izen onaren loigaŕi litzake, asaldarien guda-atzean kemena makaldu ta atzeŕian gogoz eta tramankuluz laguntzeko gogoa oztuko luken izen onaren loigaŕi.

Bilbo, beŕiro ere "uri esi-eziña" Madrid artzea bezin erabakitzaile litzake gudaren azkenarentzat eta azken-gurendaren abesti zoliо oro lekutara edatuko luken adierazle.

Bestalde, Bilbo galduko balitz, naiz eta eŕtxeа oraindik konturatu ez Madrid galtzeak bezin ondoren latzak etxeratuko lituzke. Barcelona'ri guda -oin nagusiaren beste alderdi-mutuŕari zatitu ezindako Barcelona'ri ez dio oraindik ikutu ta geldirik da guda-oin nagusia. Beraz, Barcelona'ren etorkizuna ere Euzkadi'n dago eŕotua.

Beŕiro ere Madrid-aldeko zabalkundea bera. Bilbo gaizkatzeko oro guda -oiñetatik jo bear dala esan eta beŕ -esan da. Zabalkunde aŕixkotsua ziñez, odola ta eriotza ondorengo duten joaldietara bultzatzen duan ekin gordiña, gorde al ditezken eta gordе bear izaten diran ainbat bizi galtzeko baiño bultz ez dagiten joaldietaŕako zabalkundea.

Alpeŕik jausten dan gudari bakotza, Madrid zaintzeko bat gutxiago da, Aragon aldezteko bat gutxiago. Kataluña'ren aldez eta paxistaŕkeriaren aurka jokatzeko bat gutxiago.

Laŕienetakoak dira ugeok. Sakon da gure samiña, baiña geure burua gudari egitean leporatu degun bete-beaŕak alpeŕikako baiño ez diran eta auldu baŕaŕik egiten duten biotzkadak menperatu egin ditu, gurenda ta geuŕe esku ditugun gizonen erantzupen astuna baiño ez oldozteko.

IRAKURRI TA ZABALDU

Euzko - Gudaroztiaren aldizkingia

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 116'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 18'gna. astartea | 15 eunen

Egija.

Euzkadi Abeŕi txikija da, geuria baña.

Eta bere luŕaldiaren neurkin bat eta euzkotar bat diran bitartian iraungo da.

Españar gudako izpaŕak-eta

GOBERNUA OSOTU EZIÑIK

Largo Caballero jaunak ezin osotu al izan eban. - Erkal - lendakariak Negrin jauna aukeratu eban Gobernu - Buru izan eiten eta Gobernua osotu egian. Zergatik apurtu zan lengo Gobernua? - Komunistaŕen ezin izan dau Gobernurik osotu Largo Caballero'k.-Guda-Zaingoan Prieto?-C. N. T.'koak Negrin jaunaren asmoak onartuko ez dabezan zuŕumuŕua. - Besteiro, Valencia'ra.

"LE TEMPS"EN ERITXIA

Paris. — "Le Temps"ek idazlan baten erantzupen guztia bere gain artu beaŕa dabela Valencia'ko Gobernua'k diño; oraiñarte nora-ez-ara egon dala ta zirt edo zart egin beaŕa dabela. Askaltzaletasunaren alde edo sindikalisten eraikundea aukeratu beaŕa dabe.

ZER DALA-TA APURTU DA GOBERNUOI?

Valencia.—España'ko Gobernua larunbatez izan zan batzaŕean sortu ei-zan; orduantxe eldu zan erbestetik Alvarez del Vayo ta Barcelona'ko yazoikunak begi txaŕez ikusi ebezala erbestean eta olakorik baŕiro jazo es daiten erabagi zoŕotzak artu beaŕa zala adierazo eban.

Lateŕi-eŕiketa ta eŕi-bakeari buruz Galarza'k izan daben jokalegea guztiz kaltegaŕia zala azaldu eban eta txaŕetsi, be, bai.

Galarza'k egin ebazan azalpenak ez ebezan onartu komunista ministroak eta biok atara ziran batzaŕetik eta eurok Gobernuko izatea laga egiten ebela esan eben. Catalunya'ko nasteak bide sortu da Gobernu-apurtzeoi.

LARGO CABALLERO'K EZIN GOBERNURIK EGIN

Valencia. — Igande ilunabaŕean Largo Caballero'k Gobernurik ezin osotu ebala ta osotze aginduori bete ezin eikenean, Erkal-Buruari berak ezin eikela osotu aitzen emotera juango ete zan zuŕumuŕua edatu zan.

NOR IZANGO ETE DA?

Valencia.—Gobernu-buru Besteiro, Prieto ala Negrin izango ete diran diñoe bul-bul politika-batzokietan.

ERKAL-BURUAK POLITIKA-BURUZAGIEKIN JARDUNALDIAK

Paris. — Erkal Buruak Martinez Barrio, Giral, Besteiro ta Prieto'kin jardunaldi luzeak egin dauz ta ofeitarikoren batzuei Gobernua osotzeko agindako ete dautsen ustea dago-ta.

LARGO CABALLERO TAR PANTZEZKA, españak gobernu-zaŕeko lendakarija. Azaña jaunak agindu eutsan gobernu baŕija osotu ezin ixan daularik, jaun onek, Negrin jaunari emon dautso zeregin ori

KOMUNISTAK EURENEAN

Valencia.—Gabeko amaŕak ostean Erkal-Buruari aitzen emon eutsenez komunista alderdiak bere asmoei gogor eusten dautse.

Largo Caballero'ri ori adierazo eutsenean, bere zeregiñoi bertan-bera istera Erkal-Buruarena juan zan.

KOMUNISTAK ZER NAI DABE?

Valencia.—Komunistei Lendakaritza ta Guda Zaingoan len egonak jaŕaitzea onartu eiken galdetu eutsen eta komunistak ezerkoa emon eben.

GOBERNUA OSOTU EITEN ERKAL-BURUAK ESKABIDE BAT

Valencia. — Erkal-Buruak Zozialista, Komunista ta eikaldaŕ ordezkariei beregana deitu ostean auxe eskatu eutsen: Largo Caballero'ri Gobernua egin eikean lagun egioela.

Komunista ordezkariak bere alderdiak artutako erabagiei eutsi egiten eutsela azaldu eban, baiña artezkaritzari eskabide ofen baŕi emongo eutsela esan eban. Erkal-alderdiak Erkal-Buruari baiezkoa emon eutsen.

ERKAL BURUAREN ALEGIÑAK

Valencia.—Lango Caballero'k azkenez, be, Gobernu'rik ezin osotu ta, bere zeregiñoi Erkal Buruaren eskuetan laga eban.

Erkal Buruak itxaron egiala esan eutson, ber-berak zerbait egingo ebala ta, ta politika ta langile-bateei lagundu eikioela eskatuko eutsela esan eutsan.

Gerotxoago Azaña jaunak Giral, Quemades, Prieto, Lamoneda ta Martinez Barrio'kin batzaŕa egin eban.

GUDA ZAINGOAN PRIETO?

Valencia.—Gobernu baŕian Guda Zaingoa, Itxas eta Egazkin-arazo Zaingoa bat izango dira ta danon izena Guda Zaingoa izango da.

Zaingo ofen arduradun geienak uste dabenez Prieto jauna izango da.

LATEŔI ZAINGOA

Valencia.—Lateŕi Zaingo'ko arduradun ufengo Gobernua'n, be, Alvarez del Vayo'k jaŕaituko dau, geienak uste dabenez.

MARTINEZ BARRIO TA JOSE DIAZ

Valencia.—Lendakaritza'tik ataratekoan Martinez Barrio jaunari, ezer egin eben galdetu eutsen.

—Oindiñokaŕen ez, baiña atonduko dira eritxiok—esan eban—biaŕ izango dozuez baŕiak.

Gerotxoago Jose Diaz komunista-alderdiko idazkaria etoŕi zan, bere alderdiko Bazkintza Artezkaria'ri Erkal Buruaren eskabidearen baŕi emon ostean. Komunista Artezkaŕien batzaŕean Zozialista Alderdikoak, be, izan zirala azaldu eban.

NEGRIN JAUNARI AGINDU DAUTSE GOBERNUA EGITEKO

Valencia.—Atzo goizeko amaikak eta ogei minututan eldu zan Lendakaritza'ra Martinez Barrio.

Amaikak eta bostean Ogasun Arduradun izan dan Negrin jauna eldu zan. Ateratakoan Gobernua osotzeko agindu eutsela lendakariak esan eban eta alderdiko artezkari baimena eskatzera uala.

Largo Caballero'ri, be, laguntza eskatu beaŕ eutsela adierazo eban.

UNION REPUBLICANA'K BAIEZKOA

Valencia.—Ordu batak amaŕ gitxiaguetan atara zan Negrin jauna alderdiaren baimena euki ondoren eta Union Republicana'ko artezkariekin amaŕ minutuko jarduna egin ostean aldundiko lendakariaren landolatik.

Union Republicana'k baiezkoa emon ondoren, Izquierda Republicana'ko artezkaritza nagusira zuzendu zan eta emen iñor ez egoan.

LARGO CABALLERO'KIN

Valencia.—Gobernu Lendakaritzara juan eta Largo Caballero'ri Gobernua osotzeko agindua artu ebala azaldu eutson. Amaŕ minutu egin ebazan. U. G. T.'k erantzuna emongo eutson ustean atara zan.

BESTEIRO VALENCIA'RA

Londres.—Besteiro afatsaldeko ordu bietan atara da España'rako asmoz Paris'tik eta Valencia'ra zuzenduko da. Izparlariel adierazo dautsenez politika goraberakaŕen dua España'ra.

NEGRIN, IRUXO, QUEMADES TA COROMINAS JAUNEKIN

Valencia.—Negrin jaunak Iruxo jaunakin ordu-erdi inguruko ekiñaldia egin eban Iruxo jaunaren jardunaldioi bere eginkizuna bete-egian bide egoki izan yakola esan eban Negrin jaunak.

Izquierda Republicana'ra zuzendu zan eta an Quemades, Giral eta Espla jaunakin egon zan.

Bere alegiñok bide onez uazala esan eban andik ateratakoan eta Katalunya'ko Ezkefa'ko Corominas jauna ikustera uala.

Valencia'ko Gobernua apurtuta

Largo Caballero'ren asmoak ez du oraindik bideko malkaŕik gaindu

Komunista, Sozialista ta Union Republicana'koak bide-ertzean gelditu nai dute.-Irurak do batez ez derizkiote egoki Largo Caballero'ren asmoari. Alderdi bakoitzak erantzun duana.

LARGO CABALLERO'REN ASMOA

Valencia. — Largo Caballero'k jaurgo edo Gobernu baŕia osotu egiala Eŕkala buruak agindu ostean, jaurgo asmo auxe bialdu eutsen:

U. G. T.'koentzat iru burukide edo ministro, Lendakaritza ta Guda-Zaingoa, Lateŕi-arazo-Zaingoa, ta Eŕi-Zainketa. Guda-Zaingoak lau sail izango dauz ta lau sailok: Gudea, Itxas eta Egazkin-gudea, Munizioena ta Izkiluena dira.

España'r Langile - Sozialista Alderdiak burukide bi, Ogasun eta Lugintzakoa bata ta Salerosketa ta Gintzakoa bestea.

Komunista - Alderdiak Irakasketakoa ta Lan-Zaingokoa, burukide bi.

Eŕkaldaŕ Ezkeŕ-Alderdiak, Eŕi-lan eta Zabalkunde Zaingoa, burukide bi.

Eŕkaldaŕ-Batza'k bat, Eramaneka'i ta Salerosketa Itxas saila.

C. N. T.'k bi, Zuzentza ta Osasun Zaingoak.

Zaingo bage burugide bi, Catalunya'ko Ezkefa'rena ta Euzko - Jeltzale - Alderdia'rena.

Guda-Agintaritza Orokoŕa, be, aldatzeko asmoa dau: Guda-Agintaritza bat osotuko dabe Legoŕeko Guda - Agintaritzak eta Itxas eta Egazkin-Agintaritzak.

Ofez gaiñera Largo Caballero'k Guda-arazo Batza Nagusia Gobernu Buruak, alderdietako ordezkariak eta Euzkadi'ko ta Catalunya'ko Gobernuen ordezkoak eta Guda-Agintaritza Nagusiko diran lau ordezkarik osatzea nai dau.

Batza ofetxeri yagoko guda-arazo astunenak astertzea ta auziok Guda-Zaingo'ko burukideak erabagiko dauz. Guda-arazuok Erabagitea Batza ofeitxeri yagoko ta ez Gobernua'ri. Gobernua'k eŕiketa edo politika autuak arakatuko dauz bakaŕik.

IRU ALDERDIK EZ DABE ONARTZEN LARGO CABALLERO'N ASMUA

Valencia.—Komunista Alderdi'ko artezkariak Largo Caballero'ren asmuoi ezin onartu eikela adieraso eben eta Gobernu ofetan eurok ez uazela sartzen.

Sozialista Alderdiko artezkariak, be, ezezkoa emon eben komunistak Gobernuko ez izatekotan eurok be. ezetz azaldu eben.

Eŕkaldaŕ Ezkeŕ Alderdiak be, erantzun bardiña emon eban.

UNION REPUBLICANA'REN ASMOA

Valencia.—Alderdien ordezkariak ondo egozala baiña Gobernuoi burukide laŕegik osatzen ebela adierazo eban Martinez Barrio'k.

KOMUNISTA ALDERDIAREN ASMOAK

Valencia.—Komunista ordezkariak adieraso dabenez, sozialista bat buru dala.

Eŕi-Ekintza ta langile batzen ordezkariz osotutako Gobernua nai leuke eurok.

Gobernu baŕi ofek egingo auxe dau lortu beaŕeko:

Lenengo. Eŕi-gudaroste bakaŕa sortu; euren kontura gudatzen diranak gudaroste baten eta agintaritza bakaŕ baten mende jaŕi; guda agintariak, kendu beaŕ diranak kendu ta Gobernuaren aldeko egiz diranak ipiñi.

Bigaŕen. Asaldarien aldeko diranen gintzak eta oleak Gobernuaren egin; guda-gintza ta ola guztiak Gobernua'ren zuzendaripean ipiñi. Salerosketa aundia ta erbeste diran artu-emon guztiak Gobernuaren eskuetan ipiñi.

Irugaŕen. Eŕi-bakeari eutsi ta eŕi-bakea austen dabenak zigortu; muga, portu, bitxabal eta uri-baŕuko bide zainketea Gobernua'ren eskuetan ipiñi.

Komunistok, Negrin, Prieto edo Alvarez del Vayo Gobernu lendakari izatea nai dabe.

ALDERDI BAKOITZAK ERANTZUN DUANA

Valencia.—Ona emen C. N. T. alderdiak Largo Caballero'ren asmoari erantzun diona:

"C N. T.'k Largo Caballero'ri.—Zure asmoa zeatz aztertu ondoren, zeureakin bat ez gaudela jakin-eraso bear dizugu. Ez da baiña gure naia zure aurka aufez-aufe jokatzea, alkar laguntzea baiño.

Lenengo. C. N. T. Gobernu apurtzaile izan ez zanez, egin liteke gure kideak Gobernu ortan eunetiko jurogeitamar lagunez erantzitzea.

Bigaŕen. C. N. T. ta U. G. T. lotuta daudenez, ezin degu ontzat eman arek baiño guk Gobernuan lagun gutxiago euki tzea, itz-bide ta alkar ezin ikusiaren itufi litzake-ta. Batasunez osatu bear da ori.

Irugaŕen. C. N. T. ta komunista alderdia maila baten jartzea, iñondik iñora ere ez degu onartzen;

a) Apurtu egin dualako komunista alderdiak Gobernua.

g) Gobernuaren lanetan komunista alderdiak C. N. T.'k bezin zintzo ta leial jokatu ez dualako.

k) Komunista alderdia, ez eŕi ta ez ludi osoko langileentzat, C. N. T. bestekoa ez dalako.

Laugaŕen. U. G. T.'k guda-oiñean eta guda-atzean du indar guztia (ontzat ematen degu); C. N. T.'eri ez diote usten ain gogoko duan jasotze ta egin-lanik burutzen.

Bostgaŕen. España'ren aberaspidea baten esku bakaŕik susteari iñondik iñora ere onartu ezin ditekena derizkiogu, eta orixe baiño ez da. Ogasun, Nekazaritza, Gintza Salerosketa-Zaingoa sozialisten esku ustea.

Laburtuta auxe diogu: Gobernuko malladian geuretaŕak jasotzerik ez degu eskatzen, baiña ez eta beeratzerik ere.

Agur dagitzu C. N. T.'ren izenez, Vazquez R. Mariano'k."

U. G. T.'REN ERANTZUNA

"Largo Caballero'taŕ Pantzeska lagun Geure lagun-min ori: U. G. T.'ko Artezkaritzak batzar berezian zeure 16'gaŕenekoa irakuŕi ondoren, ao batez, zaingoak banatzeari buruz, zeureari lotu da.

Agur dagitzu biotz-biotzez, Tomas'taŕ Paskal'ek."

SOZIALISTA ALDERDIARENA

"Zeure gaurkoari erantzunaz, naigabez esanbeaŕa dizugu Artezkaritza onen asmoa zuk gogoan ez izana.

Komunista alderdiaren erantzunaren beŕi jakin ondoren, gaiñera, sozialista alderdiak Gobernuan ordezkariak izateari ez derizkiogu egoki.

Zure ta sozialismoaren, Artezkaritza'ren izenez. Lamoneda'taŕ E'amon."

BURDI-SOIÑUEN ITUNA

Burdi-soiñuak entzuten doguz; dunbadotsak, be, ba-dira. Mendi-bideak bera, estarta estuak-zeaŕ burdiak zamatuta, bei-buztaŕiak bata bestearen ondoren, gizon, emakume, ume, agure, ta abaŕ agiri dira.

Zer dogu gure baseŕietan?

Ezkontzaren bat ausago? Norbaiten "afiotea" dala dirudi. Ekandu zaŕei jaŕaituz oindiñokaŕen gure baseŕietan egiten diran ezkontz-afioteak, olakoxeak izaten dira.

Zer izan ete daiken jakiteko gogoz, gagozan zain. Uŕeratuaz yatorkua. Bei-buztaŕiaren aurean dakuskun gizona, beintzat, itun dakusku: burdi-atzean datozanak, umeak izan ezik, goibel begitandu yakuz: ba-dira malkoak darioezan emakumeak: umeak, semetxoak... kabia lagatea zer dan ez dakle ta zaŕak baiño alaiago doguz ofaitiño.

Euzkadi'ko "afioteak" ofen itunak ez dira izaten, alaiak baiño. "Afiotea" begitandu yakun ostetza ta bei-buztaŕi taldea... "afiotea" baiño etxe-aldaketa samingaŕiago dogu.

Pozaren ordez ituna, etxeratzearen ordez kaleratzea, zorion itxaropenaren ordez egun baltzen gomutea ta malko gaŕaitzen lofotza dakuskuz talde ofetan yatorkuzanen arpegietan.

Burdi-soiñuen ituna, biotz-intzirien zofotza!!! Zuek zeuen kabietatik, zeuen baseŕietatik urtetera beaŕtu zaituan geŕearen latza ta gofotografia-Bestela zeuon kabitxoetatik ezin atara zindukezan eta zeuon baseŕiok euren eskuetan eukiteaŕen, zuen odolez ta zeuen izarditz euren iŕits ase-zeiñak asteaŕen, guda au asi ebenen biotz gogoŕa, ez al dogu oraigoan euzkotaŕok zatituko?

Ezkongairik zintzoenak alkaŕi izaten dautsen maitasuna baiño, be, maitasun aundiagoz maite dozuan baseŕiari aguŕ dagiozu, ene baseŕitaŕ.

Noz arteko aguŕ?

Ofa zure biotzari leŕ daragion eta malkoak izuri-arazotan dautzuzan galdera mingots latza.

Zeure biotzaren atal dan baseŕioi laga ostean, zein pozbide izan daikezu?

Etoŕi dira baiña juan, be, egingo dira. Etoŕi diran bideak zeaŕ urten eben tokira juan edo biuŕtu beaŕa izango dabe, zuek eta zuen antzera beste asko euren etxeeta-urtetera beaŕtu diruen paxista afuok.

Urten ziran tokira biuŕtuko dira: afokeritik, aundi-naikeritik sortu ziran. Afokeri ta aundi-naikeri ofeik geuk uxatuko dautsoeguez.

Eta ofeik uxatu daiguzanean...?

Egun zoriontsua...! "Afiotea" ostera, be.

Mendi-bide ta estarta estuak-zeaŕ biuŕtuko zara zeure baseŕira, ene baseŕitaŕ. Biuŕtze baŕi ori bai egiz alai: biuŕtze orixe bai egizko "afiotea".

Buŕtze egunoi zure ezkontza izango da. Zeure biotzeko baseŕtxe ofekin orduantxe ezkonduko zara bein-betiko. Zeure baseŕtxe ofekin lotuta geratuko zara ta baseŕtxe ofekin lotzen zaituan lokaŕirik eten al izango dauzan "jauntxurik" ez da gelago agertuko.

"Jauntxu"k ataŕako ez zaituan moduan biziko zara baseŕtxe ofetan. Egun ofetatik aurera baseŕtxea zeure izango da ta baseŕtxe ofetan orain-arte baiño zoriontsuago bizi al izango zara.

Egun ofetako "afiotea" pozbide bekizu.

TXINGAŔ.